

## XXI. RIKARDO ARREGI KAZETARITZA SARIA

### *AZKEN ERABAKIA*

XXI. Rikardo Arregi Kazetaritza Saria epaitzeko Andoingo Udalak izendaturiko epaimahaiak –Estanislao Amuchastegui mahaiburuak, Alazne Aiestaran, Agustin Errotabehere, Joxe Rojas, Arantxa Urretabizkaia eta Aitor Zuberogoitiak, eta idazkari gisa eta, beraz, hizpidez baina hautespiderik gabe, Nekane Goikoetxeak- adostu du ondorengo *azken erabakia* hartu eta ezagutzera ematea.

1.- Dakizuen bezala, euskaraz egindako kazetaritza suspertzea da sari honen helburu nagusia; kazetariak urtebetean eginiko lana behatzea eta baloratzea, berriz, epaimahai honen egitekoa.

2.- Eskerrak eman beharrez da Epaimahaia, bai komunikazio-ikasketak eskaintzen dituzten unibertsitateetako irakasleei, baita hedabideetako zuzendariari ere, asko izan direlako aurten sarira aurkeztu diren kazetari berrien lanak. Oro har, lan txukun askoak aurkeztu dira, bai gaiez bai moldez. Epaimahaiak aipatu nahiko luke neketsua gertatu zaiola aurkeztutako hautagaitzen artean bat aukeratzen.

Hauxe da epaimahai honen erabakia:

\* **2.1.- “Kazetari berria”** ataleko saria, 3.000,- euroz, diplomaz eta Xabier Laka eskultorearen oroitikurraz hornitutakoa. Kazetaritza munduan lehen urratsak egin dituzten gazteentzat pentsatua, gehienez 27 urte dituztenek dute aurkezteko aukera.

Aurtengo irabazleak honako merezimenduok ditu Rikardo Arregi Kazetaritza Sariko epaimahaiaren iritziz:

- Kazetaritzan erabiltzen dituen genero ezberdinak, informazioa zein iritzia, ondo menperatzen ditu.
- Kazetariari ikuspuntu kritiko eta pertsonalitate handia sumatzen zaio.
- Kontalariaren sena nabarmentzen zaio eta testua aberasten duten erreferentzia asko baliatzen ditu.
- Idatziak kolore handikoak dira, ausartak; testuaren bihurgune bakoitzean arriskatu egiten baita egilea. Arriskatu kritiketan, estiloan eta gaien uztarketan.

+ *Sariduna:* **Gorka Bereziartua Mitxelena** jauna.

+ *Saritutako lana:* 2008ko ekainetik 2009ko maiatzera bitartean Argian argitaratutako hainbat lan.

\* **2.2.- XXI. Rikardo Arregi Kazetaritza Sariko “Epaimahaiaren Sari Berezia”**, diplomaz eta 4.000,- euroz hornitutakoa. Honen bitartez saritzen da epaimahaiak bereziki azpimarratu nahi duen irizpide bat, kasu honetan, kazetaritza espezializatuaren adibide ona izatea.

Ondorengo lanak aitortzen merezi duela irizten du epaimahaiak, ondorengo arrazoiengatik:

- Klasikotzat jo liteke urteen poderioz sendotzen joan den lan hau.
- Aipagarria da lan honen oinarrian dagoen dokumentazio lan ikaragarria.
- Esatariaren zehaztasun eta ironiak kantuei lotutako istorio eta kontuen taxuzko joskera biribiltzen du.
- Kazetaritza espezializatuaren adibide ona da, gutxitan goraipatzen dena, musikaren gaian sakontzen duena.

+ *Epaimahaiaren Sari Berezia: Euskadi Irratiko Kostaldeko Trena irratsaioaren lan-taldea.*

+ *Saritutako lana: Euskadi Irratiko Kostaldeko trena irratsaioa.*

\* **2.3.- XXI. Rikardo Arregi Kazetaritza Sariko “Sari Nagusia”**, diplomaz, 9.000,- euroz eta Xabier Laka eskultorearen oroitikurrak hornitutakoa. Honen bitartez saritzen direnak kalitatea, berrikuntza eta eredugarritasuna dira.

Hauek dira epaimahaiaren ustez azpimarratzeko alderdiak:

- Kazetariak egin duen gaien aukeraketa bitxia, originala da.
- Informazioa emateko modua ulerterraza eta aldi berean zorrotza da.
- Kamara aurrekoa benetan bikaina iruditzen zaio epaimahaiari.
- Topikoetatik haratago, Txinako gizartera hurbiltzeko modu aberatsa eskaintzen die ikus-entzuleei.
- Bereziki azpimarragarria da Olinpiar Jokoen berri ematerakoan erakutsitako originaltasun, zorrotasun eta aberastasuna.

+ *Sariduna*: **Olatz Simon andrea**.

+ *Saritutako lana*: 2008ko ekainetik 2009ko maiatzera Euskal Telebistarentzat egindako lanak.

3.- Ohorezko Aipamenari helduko diogu jarraian. Ohorezko Aipamena norabide ezberdinetan erabili izan du Rikardo Arregi Kazetaritza Sariaren ibilbidean zehar garaian garaiko epaimahaiak. Batzuetan, bizi osoan euskarazko kazetaritzan egindako ibilbidea saritzeko; besteetan, oso gauza ohargarriak azpimarratzeko.

80ko hamarkadaren bukaeran tokian tokiko komunikabideen loraldia gauzatu zen Euskal Herriko zenbait txokotan, herri eta eskualde mailako komunikabide txikiak sortuz. Euskara talde eta kultur elkarteek bultzatu zituzten egitasmo

gehienak; haien aitzindari, prentsa idatzian Ttipi-ttapa (1981) eta Arrasate Press izan ziren.

Ohorezko Aipamena jasoko dutenek honako merezimenduak dituzte epaimahaiaren iritziz:

- Azpimarratzekoa da arlo askotan erakutsitako aitzindaritza, bai produktuetan (aldizkaria kaleratzean eta sareratzen, lehen web gunea beraiena, Goienarekin batera lehen tokiko TB); bai kudeaketan (mugaz gaindiko hedapena edota irudi korporatiboaren berrikuntza, adibidez).

- Komunikazio-egitasmoak egoki erantzuten dio xede duen gizarte nafarrari.

- Joera eraberritzailea, inkonformista, izatea 25 urteko ibilbide guztian zehar. Etengabeko hobekuntzan jardutea.

- Egoera zailtan (TBren etena...) aurrera begiratzeko eta beste hedabide batzuekiko sinergiak bilatzeko kemena izatea.

- Sortu zenetik gaur egun arte izan dituen eta egun dituen zailtasunak zailtasun, euskara hutsezko kazetaritzaren aldeko apustu ausarta egin izana.

*Rikardo Arregi Kazetaritza Sariaren Ohorezko Aipamena* **Ttipi-ttapa**  
**komunikazio-egitasmoarentzat da.**

-----

Honaino, bada, *XXI. Rikardo Arregi Kazetaritza Sariari* dagokion **azken**  
**erabakia**. Epaimahaikideok ontzat ematen eta sinatzen dugu gaur, Andoainen,  
bi mila eta bederatziko ekainaren hogeita zazpian.

**Estanislao Amuchastegui**

**Alazne Aiestaran**

**Agustin Errotabehere**

**Joxe Rojas**

**Arantxa Urretabizkaia**

**Aitor Zuberogoitia**

**Nekane Goikoetxea**